



BBK SALA musika-talde eta artisten lehiaketa

BBK Salako musika-talde eta artisten lehiaketaren helburua da gorabidean dauden talde eta artistei aukera eskaintzea, maila profesional handieneko eta akustikarik oneneko areto batean, nabarmentzeko eta jarduteko, beraien sustapen eta dibulgaziorako.

Gainera, parte hartzen duten talde eta artista guztiei ikus-entzunezko materiala, maila profesionala duena, emango diegu, beren sustapen eta kontrataziorako erabil dezaten.

1.- Hautatze-prozesua.

Bizkaian erroldaturiko artista heldu guztiek parte hartu ahal izango dute lehiaketan, baita musika-taldeek ere, gutxienez kide bat Bizkaian erroldatua baldin badute, eta betiere diskografia-kontraturik indarrean ez badute.

Genero guztiak onartuko dira: Rock, Pop, Soul, R&B, Hip Hop, Trap, Elektronikoa, Surf, Garaje, Folk, Metal... Parte-hartzaileen originaltasuna, nortasuna, ahalmena, talentua eta karisma sarituko ditugu.

2.- Izen-ematea eta bidali beharreko materiala.

Artistek formulario bat bete behar dute BBKren webgunean eta bertan beren izenak jarri, taldearen edo artistaren izena, baldin badago, helbideak, prestakuntza (zer tresna edo instrumentu jotzen duen kide bakoitzak), helbide elektronikoa bat eta harremanetarako bi telefono.

Gainera, gutxienez hiru gai eta gehienez bost bidali behar dituzte mp3, aiff edo wav formatuan.

Izen-ematea zabalik izango da martxoaren 28ko 12:00ak arte.



3.- Hautaturiko talde guztiei ikus-entzunezko materiala eskainiko diegu beren sustapen eta dibulgaziorako.

- Kontzertu osoa grabatu eta streaming bidez emana hainbat kamerarekin.
- Interpretaturiko gai guztien muntaia eta edizioa bideo formatuan.
- Kontzertu osoaren audioaren grabazioa, nahasketa eta masterizazioa, talde edo artistari emango zaiona, eta azken bideoaren muntaiari ere gehituko

zaiona. (Taldeak aukera izango du aldaketaren batzuk egiteko azken nahasketan).

4.- Taldeei sustapena eskaintzen diegu gure kanaletan eta hedabideetan lehen deskribaturiko materialarekin.

Ekitaldien bideoak BBK Salaren webgunean eta Youtubeko kanalean promozionatu eta artxibatuko dira, eta lehiaketaren laguntza eta dibulgazioa egingo dira Zarata-Mondosonororen aldetik.

5.- **Sariak.**

Bizkaia BIME Live International Music Experience delakoaren hurrengo edizioan parte hartuko du irabazleak, 4 gaiko EP bat grabatuko du Deustuko El Tigre estudioetan eta bideoklip bat ere grabatuko du StereoZona kanalean.

Bigarren sailkatuak 4 gaiko EP baten grabazioa lortuko du Deustuko El Tigre estudioetan.



6.- Egutegia.

Izena emateko epea martxoaren 28ko 12:00etan amaituko da.

Lehiaketako 12 parte-hartzaileak, BBK Salan jardungo dutenak, apirilaren 1ean ezagutaraziko dira. Hautaturikoak eta ekitaldien egutegia lehiaketaren orrian emango dugu argitara, eta jakinarazpen-mezu elektronikoak bidaliko dizkiegu hautaturiko artistei, jakin dezaten hautatuak izan direla eta zein egunetan parte hartuko duten Salan.

Lau sailkapen-ekitaldi izango dira finalerako, hiru emanaldirekin eguneko. Emanaldiak apirilaren 11n eta 25ean, eta maiatzaren 9an eta 30ean izango dira. Ekitaldiek 30' eta 40'ko iraupena izango dute. Finala ekainaren 20an izango da, epaimahaiak hautaturiko hiru artista onenekin.

- Salak oinarrizko backline bat emango die parte-hartzaileei, hots, bateria osoa eta baxu-anplifikadorea. Ekitaldirako behar diren gainerako instrumentuak artista/talde bakoitzak ekarri behar ditu.
- Soinu-proba ekitaldiko arratsalde berean izango da, eta ekitaldiaren alderantzizko ordena edo hurrenkeran. Aldez aurretik jakinaraziko ditugu artista

bakoitzarentzako ordutegiak.

7.- Epaimahaikoak honako hauek izango dira:

- Elías Monreal. (Last Tour/ Meyo Records/ Encarta Club)
- Oihane Aldayturriaga (BBK-ko Kultura Arloko arduraduna)
- Deu Txakartegi (Lehiaketako zuzendaria / WAS).
- Julen Alberdi (Vulk).
- Iker Bárbara, Zarata-Mondosonorokoa.



8.- Garapena.

- 12 artista 4 ekitalditan. Apirilaren 11n eta 25ean, eta maiatzaren 9an eta 30ean.
- Azken ekitaldia ekainaren 20an izango da.

9.- Prozesua.

- I. fasea. Proposamenak jasotzea.
- II. fasea. Hautatzea.
- III. fasea. Sailkapen-ekitaldiak.
- IV. fasea. Finalistak hautatzea.
- V. fasea. Azken ekitaldia.
- VI. fasea. Epaimahaiaren erabakia. Sari-ematea.